


Paziente-kopurua %1,7 hazi zen euskal ospitaleetan

Sistema osteo-muskularraren gaixotasunengatiko ospitalizazioak %7 gehitu dira

Euskal AEko ospitaleek 323.621 alta eman zituzten 2011n, 2010ean baino %1,7 gehiago, Eustaten datuen arabera. Alta guztien %74, ospitale publikoetakoak; %26, pribatuetoakoak.

Nerbio-sistemeekin eta zentzumenen organoekin lotutako gaixotasunak izan ziren aurreneko ospitalizazio-arrazoia (%12,4); ondoren digestio-aparatuarenak eta zirkulazioarenak (%11,3 biak); tumoreak %9,2) eta osteo-muskularrak (%9,1).

Ospitaleko alta jasotzen duten pazienteak, diagnostiko talde ohikoenei jarraiki



Iturria: Eustat. Euskal Aeoko ospitaleetako erikortasu estatistika

Aurreko urtearen aldean nabarmendu behar da haurduntza, erditze eta erdiberriario gertakarien jaitsiera (%-1,1), eta gaixotasun osteo-muskularren (%7), arnas-aparatukoaren (%5,7), nerbio-sistema eta zentzumen-organoen (%4,4) eta digestio-aparatukoaren (%3,4) ugartzea.

Ospitaleko alta jasotzen duten pazienteak, diagnostiko talde ohikoenei jarraiki sexuaren eta adinaren arabera

Adin-talde handiak	Altak guztira (*) %	Sexua		Adin-taldeak			
		Gizonak	Emakumeak	0-14	15-44	45-64	65 eta gehiago
Total	100	156.359	167.262	16.158	80.762	86.406	140.295
Nerbio-sistema eta zentzumen organoak	12,4	16.888	23.202	1.293	3.372	8.421	27.004
Digestio-aparatua	11,3	21.227	15.299	1.720	8.465	11.443	14.898
Zirkulazio-aparatua	11,3	20.887	15.566	124	3.219	10.009	23.101
Tumoreak	9,2	15.966	13.954	386	4.007	11.147	14.380
Osteomuskularrak	9,1	14.789	14.549	371	7.179	11.636	10.152
Arnas aparatua	8,5	16.259	11.089	3.645	4.591	5.218	13.894
Haurdunaldiko, erditzeko eta erditze ondoko arazoak	7,9	-	25.629	1	25.537	91	-

(*) alta guztien %

Iturria: Eustat. Euskal Aeko ospitaleetako erikortasu estatistika

Ospitalizatuen %51,7, emakumeak; %48,3, gizonak. Emakume gehiago ospitalizatzen dira haurduntza eta erditzeagatik. Ospitalizatutakoaren %43,4k 65 urte edo gehiago zituen; proportzio hau etengabe hazi da azken urteetan (%42,6 2009an, %42,9 2010ean); ospitalizazio-adin maizena, 77 urte.

Gizonen ospitalizazio-arrazoi maizenak: digestio-aparatua (%13,6), zirkulazio-aparatua (%13,4), nerbio-sistema eta zentzumenen organoak (%10,8), arnas-aparatua (%10,4).

Emakume-altarik gehien (%15,3) haurduntza, erditze eta erdiberriarioa; nerbio-sistema eta zentzumen-organoak (%13,9), zirkulazio-aparatua (%9,3), digestio-aparatua (%9,1).

Patologia maizenak: begi-lauroa (nerbio-sistema eta zentzumen-organoak), gutxiegitasun kardiakoa eta arteroesklerosi koronarioa (zirkulazio aparatua), iztai-etena eta behazun-harriak (apartu digestiboa), pneumonia eta arnas-frakasua (arnas-aparatua).

Beste gaixotasun-talde ugariak (15 paziente pasa): tumoreak eta osteo.-muskularrak. Tumore-leku maizenak, ordenatuak: maskuria, kolona, titia, prostata.

Heriotza-eragile nagusiak ospitaleetan: tumoreak (%24,8), zirkulazio-gaixotasunak (%22,6), arnas-aparatuen gaixotasunak (%17,3). Patologia-moten arabera, septicemia hirugarren heriotza-eragilea da ospitaleetan.

Gaixotasun osteo-muskularrak ere oso osasun-arazo ugariak dira. Arrazoi honengatik ospitale-gertakariak %7 ugartu ziren 2010aren aldean; hona hemen patologia nagusiak: belauneko barne nahasmendua (batez besteko adina, 47 urte); osteoartrosia (68 urte); bien artean gaixotasun-talde honetako %41,5.

Ospitaleko batez besteko egonaldia, 6 egun 2011n (6,1 2010ean, 6,3 2009an). Egonaldi luzeenak: asaldu mentalak (14,1 egun), jaiotza-inguruko gaixotasunak (11,3), infekzioak (9,1), tumoreak (8,2).

Argibide gehiago:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Marta de la Torre Fernández

Tel.:+34-945-01 75 34 Faxe:+34-945-01 75 01

Ospitaleetako erikortasunaren estatistikari buruzko prentsa-ohar gehiago

Ospitaleetako erikortasunaren estatistikaren datu-basea